

## **Gipuzkoako gizarte zerbitzuen 2018-2021 maparen ebaluazioa**

**2018ko ekitaldia**

Donostian, 2019ko martxoaren 25ean

## **Aurkibidea:**

Sarrera .....	3
1.- Arreta estalduraren unibertsalizazioan aurrera egitea 2018. urterako.....	4
2.- Gizarte baliabideen eskaintza egokitzea eta horien lurralde oreka lortzea .....	8
3.- Eskaintzaren kalitatea eta hurbiltasuna hobetzea.....	11
4.- Ondorioak .....	14
5.- Gomendioak 2019-2021 hirurtekorako .....	15
I. ERANSKINA: MAPAREN BETETZE MAILAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	16

## Sarrera

Gipuzkoako gizarte zerbitzuen 2018-2021 Maparen II. Eranskinean **ebaluazio plan** bat ageri da. Horren bidez, proposatutako helburuen eta neurrien jarraipen, ebaluazio eta kontrol publikoa egin daiteke, horretarako, hasiera-hasieratik adierazle eta mugarri batzuk zehaztuz, horien bidez behar bezala eta modu objektiboan zenbatetsi ahal izateko ea zehaztutako helburuak lortzen ari diren, eta ea hobekuntzarik edo aldaketarik ezarri behar den, hori guztia maparen feedback prozesu etengabe gisa ulertuta.

Urteko ebaluazio txostena osatzea aurreikusi zen plan horretan. Beraz, Maparen 2018ko ekitaldiko ebaluazioa egiten da txosten honetan, zehazki Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko bigarren mailako arreta zerbitzuen ingurukoa.

Maparen lehenengo hiru helburu nagusiak aztertzen dira hurrengo hiru ataletan; laugarren atalean ondorio nagusiak jaso dira, eta 2019-2021 hirurtekorako gomendio batzuk jaso dira bosgarren atalean.

Txosten hau erabat osatzeko, eranskin gisa ageri dira Maparen helburuak, 2018ko ekitaldirako aurreikusitako adierazle, helburu eta aurrerakuntza mailekin.

## 1.- Arreta estalduraren unibertsalizazioan aurrera egitea 2018. urterako

Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018. urterako bermatu behar dituen gizarte zerbitzuen unibertsalizazioan zein aurrerapen egon den neurtzen saiatuko gara atal honetan.

Neurketa hori lau adierazle blokeren bidez egingo da: foru plazen eskaintzaren bilakaera; hainbat zerbitzuetako itxarote zerrendak; mendekotasunari arreta; eta Gipuzkoako populazioaren estaldura osoa.

### 1.1.- Foru plaza eskaintza

2017-12-31n, foru plazen eskaintza hau zen:

#### 1. taula.- Plaza eskaintza 2017. urtean

2017		
<b>2. BIGARREN MAILAKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUAK</b>	<b>Plaza kopurua</b>	<b>Esparrua</b>
<b>2.2. Eguneko zerbitzuak edo zentroak</b>		
2.2.1. Adineko pertsoneri eta mendekotasun egoeran dauden pertsoneri arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa	1540	Eremua
2.2.1. Adineko pertsoneri eta mendekotasun egoeran dauden pertsoneri arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa (jaiegunak eta asteburuak)	629	Eremua
2.2.1. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko eguneko zerbitzu edo zentroa: helduak eta desgaitasuna	680	Sektorea
2.2.1 Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa	234	Sektorea
2.2.2. Zerbitzu edo zentro okupazionala	1106	Eremua
2.2.3. Gizarteratze premiei arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa	168	Sektorea
2.2.3. Babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako zerbitzua edo eguneko zentroa	0	Lurralde Historikoa
<b>2.3. Gaueko harrera zentroak</b>		
2.3.1. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko gaueko zentroa	0	Lurralde Historikoa
2.3.2. Gizarteratze premiei arreta emateko gaueko harrera zentroa	8	Lurralde Historikoa
<b>2.4. Egoitza zentroak</b>		
2.4.1 Adineko pertsonentzako egoitza zentroak	4496	Eremua
2.4.2 Desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza zentroak	419	Sektorea
Egoitza zentro soziosanitarioak	100	Lurralde Historikoa
2.4.2.a) Laguntzadun etxebizitzak desgaitasunen bat duten pertsonentzat (bereiziak)	415	Eskualdea
2.4.3 Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak (bereiziak)	124	Sektorea
2.4.3.a) Laguntzadun etxebizitzak buruko gaixotasuna duten pertsonentzat (bereiziak)	105	Eskualdea
2.4.4. Babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako egoitza zentroak	329	Eskualdea
2.4.5. (1) Bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak: egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza zentroak barne	44	Lurralde Historikoa
2.4.5. (2) Bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitzak zentroak: gizarteratzeko egoitza zerbitzuak (bereiziak)	413	Sektorea
2.4.6. (1) Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroak eta emakumeentzako bestelako egoitza zerbitzuak: epe ertain eta luzeko egonaldirako zentroak eta berehalako harrera zentroak	20	Lurralde Historikoa
<b>PLAZAK GUZTIRA</b>	<b>10830</b>	

2018. urtean 289 plaza sortu dira. Horrek esan nahi du, aurreikuspenen arabera laurtekoan sortu beharreko plazen (869) % 39 sortu direla, honela banatuta:

## 2. taula.- Plazen eskaintza eta plaza berriak 2018. urtean

2018					
	Plaza kopurua	Plaza berriak	2018-2021 Mapan aurreikusitako plaza kopurua	Irekitako plazen %, aurreikusitako plaza kopurua oinarritzat hartuta	Esparrua
<b>2. BIGARREN MAILAKO ARRETAKE GIZARTE ZERBITZUAK</b>					
<b>2.2. Eguneko zerbitzuak edo zentroak</b>					
2.2.1. Adineko pertsonen eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa	1557	17	23	74	Eremua
2.2.1. Adineko pertsonen eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa (jaiegunak eta asteburuak)	650	21	28	75	Eremua
2.2.1. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko eguneko zerbitzu edo zentroa: helduak eta desgaitasuna	706	26	42	62	Sektorea
2.2.1. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa	234	0	29	0	Sektorea
2.2.2. Zerbitzu edo zentro okupazionala	1116	10	25	40	Eremua
2.2.3. Gizarteratze premiei arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa	185	17	34	50	Sektorea
2.2.3. Babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako zerbitzua edo eguneko zentroa	18	18	18	100	Lurralde Historikoa
<b>2.3. Gaueko harrera zentroak</b>					
2.3.1. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko gaueko zentroa	0	0	0	-	Lurralde Historikoa
2.3.2. Gizarteratze premiei arreta emateko gaueko harrera zentroa	12	4	7	57	Lurralde Historikoa
<b>2.4. Egoitza zentroak</b>					
2.4.1 Adineko pertsonentzako egoitza zentroak	4555	59	360	16	Eremua
2.4.2 Desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza zentroak	434	16	37	41	Sektorea
Egoitza zentro soziosanitarioak	100	0	35	0	Lurralde Historikoa
2.4.2.a) Laguntzadun etxebizitzak desgaitasunen bat duten pertsonentzat (bereiziak)	419	4	51	8	Eskualdea
2.4.3 Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak (bereiziak)	124	0	57	0	Sektorea
2.4.3.a) Laguntzadun etxebizitzak buruko gaixotasuna duten pertsonentzat (bereiziak)	115	10	32	31	Eskualdea
2.4.4. Babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako egoitza zentroak	392	63	32	197	Eskualdea
2.4.5. (1) Bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak: egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza zentroak barne	52	8	24	33	Lurralde Historikoa
2.4.5. (2) Bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitzak zentroak: gizarteratzeko egoitza zerbitzuak (bereiziak)	429	16	26	62	Sektorea
2.4.6. (1) Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroak eta emakumeentzako bestelako egoitza zerbitzuak: epe ertain eta luzeko egonaldirako zentroak eta berehalako harrera zentroak	20	0	9	0	Lurralde Historikoa
<b>PLAZAK GUZTIRA</b>	<b>11.118</b>	<b>289</b>	<b>869</b>	<b>39</b>	

Irekitako plazen batez besteko ehunekoa kalkulatzeko, babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako egoitza zentroen ezohiko areagotzea % 100 gisa hartu da kontuan, % 197ko muturreko balioaren ordeiz.

Irekitako plazak baliabide motaren arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu **eguneko zentroen** kasuan, plaza berrien gauzatzea % 57koa dela batez beste. Mapan zehaztutako aurreikuspenak bete ez diren baliabide bakarria buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroena izan da.

3 baliabide motatan ez da plazarik sortu: egoitza zentro soziosanitarioetan, buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan (kolektibo horrentzako etxebizitzaren kasuan, berriz, aurreikuspenaren % 31 bete da), eta azkenik, indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroetan. 2019-2021 epean egin beharko zaie aurre premia horiei.

### 1.2.- Itxarote zerrenda, zerbitzuka.

Gizarte zerbitzuetan ase gabeko eskaria neurtzeko orduan, Mapan hautatuko itxarote zerrendak bost zerbitzu zehatzekoak dira: adineko pertsonentzako eguneko zentroak, desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak, adineko pertsonentzako egoitza zentroak, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak eta buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak. Itxarote zerrendaren adierazlea kalkulatzeko, itxarote zerrenda errealaren eta itxarote zerrenda teknikoaren —plaza publikoen ehuneko hamarrena dena— arteko aldea hartzen da kontuan. 0«Gehiegizko itxarote zerrenda» esango diogu adierazle horri.

### 3. taula.- Gehiegizko itxarote zerrenda 2016-2018 hirurtekoan, abenduaren 31ko data erreferentzia gisa hartuta

2. BIGARREN MAILAKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUAK	Esparrua	2016	2017	2018	Helburua 2021. urterako
<b>2.2. Eguneko zerbitzuak edo zentroak</b>					
2.2.1. Adineko pertsonen eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa	Eremua	58	0	20	0
2.2.3. Gizarteratze premiei arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa	Sektorea	1	1	11	0
<b>2.4. Egoitza zentroak</b>					
2.4.1 Adineko pertsonentzako egoitza zentroak	Eremua	419	387	300	200
2.4.2 Desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza zentroak	Sektorea	28	28	14	10
2.4.3 Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak (bereiziak)	Sektorea	43	33	51	15

Aipatutako bost zerbitzuetatik bitan, zehazki adineko pertsonentzako egoitza zentroetan eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan, itxarote zerrenda % 22 eta % 50 murriztu da, hurrenez hurren.

**Adineko pertsonentzako egoitza zentroen** kasuan, 2017. urtean 4.496 plaza publiko zeuden, eta 2018. urtean, berriz, 4.555. Beraz, horrek esan nahi du plaza publikoen kopurua % 1,3 areagotu dela.

**Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan** (etxebizitzak barne), 2017. urteko datuak oinarritzat hartuta, gehiegizko itxarote zerrenda % 50 murriztu da. Gehiegizko itxarote zerrenda horretan 14 pertsona geratu dira beraz, eta 2021. urterako zehaztutako gehiegizko itxarote zerrenda 10 pertsonakoa dela kontuan hartuz, helburutik gertuago gaude.

Itxarote zerrenda erreal (99) % 10 murriztu da 2018. urtean, eta aldi berean, 19 plaza gehiago ezarri dira. Beraz, 2018. urtean 854 plaza publiko eskaini dira guztira, itxarote zerrenda teknikoaren zifretara (85) gerturatuz.

**Mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetan**, 2017ko datuekin alderatuta, % 41 areagotu da itxarote zerrenda. 2017. urtean 1.540 plaza publiko zeuden, eta 2018. urtean, berriz 1.557. Horrek esan nahi du plaza publikoen kopurua % 1,1 areagotu dela.

Laurtekorako 23 plaza irekitzea zegoen aurreikusita Mapan, eta horietatik 17 ireki dira. Itxarote zerrenda areagotu den arren, errotazio indize handiko baliabidea denez (% 1,56), eta kontuan hartuta baliabide horretan plaza bat lortzeko itxarote epea hilabete eta erdikoa dela (46 egun), ez da beharrezkotzat jotzen aurreikusitakoa baino plaza gehiago irekitzea. Plaza defizita Debagoienan kontzentratzen da.

**Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan (etxebizitzak barne)**, gehiegizko itxarote zerrenda % 55 areagotu da 2018an, plaza eskaintza % 4 areagotu baita soilik, eta itxarote zerrenda berriz, % 32 areagotu baita.

**Gizarteratzeko eguneko zentroen** kasuan, % 11koa da gehiegizko itxarote zerrenda. 2017an ez zegoen gehiegizko itxarote zerrendarik. 2018. urtean, plazen eskaintza % 10 areagotu da, eta itxarote zerrenda, berriz, % 61. Itxarote zerrenda oso luzea izan ez arren (29 pertsona), areagotu egin da azken seihilekoan.

2017. urtean 168 plaza publiko zeuden, eta 2018. urtean, berriz, 185. Beraz, horrek esan nahi du plaza publikoen kopurua % 10 areagotu dela.

Azkenik, aipagarria da 2017. urtean okupazio tasa % 86 zela eta tasa horrek 7 puntu egin duela gora, 2011-12-31n % 93koa baitzen. Beraz, gainerako zerbitzuen batez besteko okupazio mailatik gertu dago, eta beraz, 2.3 helburua, «Zentroen okupazioa maximizatzea» izenekoa, betetzen da.

### **1.3.- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta**

Edozein mendekotasun maila duten pertsonen arreta estaldura % 83,4 ingurukoa da; hala ere, 3. mendekotasun mailarekin balioetsitako adineko pertsona kopuru osoa kontuan hartuta, artatutako 3. mailako mendekotasuneko pertsonak bakarrik hartzen badira kontuan % 93 inguruan mantentzen da estaldura.

2017ko abenduan 24/2017 Foru dekretua onartu zen, abenduaren 12koa, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta zainketa sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituenak, eta 2018ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean. Dekretu horren bidez, autonomia sustatzeko sistema indartzen da, prestakuntza ikastaroak egiaztatuz, zainketa profesionalizatuagoak eskatzen baitira. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa —ZLPE— sustatzen da, prestazioa jaso ahal izateko 3 hilabeteko itxarote zerrendaren baldintza ezabatuz. Era berean, eguneko zentroko zerbitzuek prestazio hori jasotzeko aukera ezartzen da: horren ondorio gisa, prestazio hori jasotzen duten pertsonen kopurua % 34 areagotu da.

### **1.4.- Populazioaren arretaren estaldura**

Populazioaren eta premia handiena dituzten kolektiboen inguruan, 2018ko helburuak hauek izan dira: egungo estaldura mantentzea.

Eranskinean zehaztu den moduan, 1.1 helburuaren 2018rako balioak, hain zuzen ere populazioaren arretaren estaldura osoari buruzkoak, mantendu egin dira. Estaldura kalkulatzeko orduan, INEren 2018ko behin-behineko errolda hartu da kontuan —Gipuzkoako populazioak % 0,35 gora egin duela (2.515 pertsona gehiago)— baita etxez etxeko laguntza zerbitzuaren 3. hiruhileko likidazioa ere (4. hiruhilekoa likidatzeke baitago oraindik). Hori guztia dela eta, aurrerago aldaketa txikiren bat egin daiteke zifra horietan.

1.2. Helburuari dagokionez —mendekotasun egoeran dagoen populazioaren egungo estaldura mantentzea—, 2018ko balioak aztertuz gero, ikusiko dugu ehunekoa % 86,47tik % 83,45era murriztu dela, arrazoi hauek direla eta: mendekotasun egoeran dauden pertsonen kopuruak % 2 gora egin duen arren, mendekotasun egoeran dauden artatutako pertsonen kopuruak % 2 behera egin duelako (23.720 pertsonatik 23.143 pertsonara).

Mendekotasun egoeran dauden artatutako pertsonen kopuruak behera egitearen arrazoi nagusia da 24/2017 Foru Dekretuak, abenduaren 12koak, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta zainketa sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoa arautzen dituenak 9.2. artikuluan xedatutakoa aplikatu dela. Izan ere, artikuluko horren arabera, prestazioa eskuratzeko baldintza izango baita ordaindu beharreko zenbatekoa, behin murrizketak eta kenkariak ezarrita, zero euro baino gehiago izatea. 2018ko urtarrilean, mendekotasuna duten pertsonen prestazioetan alta emanda zeuden 587 pertsonen baxa eman zitzaizen, zero baitzen aipatutako zenbatekoa.

1.3 helburuan —mendekotasun handiena duen populazioaren arretaren egungo estaldura mantentzea— aztertutako zifrei dagokienez, % 93 inguru mantendu da ehunekoa 2018ko ekitaldian.

## 2.- Gizarte baliabideen eskaintza egokitzea eta horien lurralde oreka lortzea

Atal honetan aztertu dira Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintutako gizarte zerbitzuen eskariaren eta eskaintzaren arteko egitura doikuntzak. Horretarako, azalpen gehiagorik behar ez duten adierazle sorta batzuen baloreak aztertu dira; hala ere, lurralde desorekari dagokiona bakarrik islatuko da txosten honetan.

### Lurralde desoreka

Lurralde desorekaren adierazleak (2.1) zerbitzuen estaldura aldeak neurtzen ditu, eta eremua da zerbitzu horien jarduketara esparrua. Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako egoitza zentroak eta eguneko zentroak aztertu dira, eta azpiko taulan zehaztutako estaldura indizeak kalkulatu dira.

#### 4. taula.- Estaldura eremuka, adineko pertsonentzako egoitza zentroetako zein eguneko zentroetako plazetan (%)

	Helburu operatiboa	Adierazlea	2017	2018	XEDEA
2.1	Adineko pertsonentzako baliabide eskaintzan lurralde desorekak	Eremukako estaldura, adineko pertsonentzako egoitza zentroetako zein eguneko zentroetako	Bergaraldea 3,77 Bidasoaldea 3,33	3,77 3,35	4,01 4,01



murriztea, eremu bakoitzean Gipuzkoako batez besteko estaldura lortuz adineko pertsonentzako egoitza zentroetako zein eguneko zentroetako plazetan.	plazetan.	Buruntzaldea 3,00	3,00	4,01
		Deba Erdia 4,31	4,37	4,01
		Deba Kosta 2,99	3,19	4,01
		Donostia 4,47	4,48	4,01
		Iraurgi 4,73	4,73	4,01
		Leintz Ibarra 4,42	4,56	4,01
		Oarsoaldea 3,46	3,57	4,01
		Oria Garaia 4,23	4,46	4,01
		Tolosaldea 4,74	4,74	4,01
		Urola Garaia 4,29	4,29	4,01
		Urola Kostal. 3,94	3,94	4,01
	<b>Gipuzkoako batez bestekoa</b>		<b>3,98</b>	<b>4,03</b>

Gipuzkoa mailan, bi zerbitzuen estaldura maila % 4,03 ingurukoa da, eta beraz, 2021. urterako aurreikusitako helburua (**% 4,01**) gainditzen da. Gipuzkoako lurralde 13 eremutan dago banatuta. 13 eremu horietatik 6 eremutan, lortu nahi den helburua baino apalagoa da estaldura, eta beste 7 eremuetan, berriz, handiagoa. Estaldura apalagoa den 6 eremuen artean, aipagarria da Buruntzaldea, % 3,00ko estaldura baitu, eta Deba Kosta, % 3,19ko estaldura baitu. Oarsoaldea eremuaren egoerak hobera egin du, bertako estaldurak 0,11 puntu egin baitu gora.

Gipuzkoako batez bestekoa baino estaldura handiagoa duten 7 eremuen artean, aipagarriak dira Tolosaldea eta Iraurgi, % 4,74ko eta % 4,73ko estaldura baitute, hurrenez hurren.

### Eskariaren eta eskaintzaren arteko doikuntzaren inguruko gainerako adierazleak

Jarraian ageri dira zehaztuta eskariaren eta eskaintzaren arteko doikuntzaren inguruko gainerako adierazleak. Aipagarria da foru plazen okupazio tasa handia.

#### 5. taula.- Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen egoitzetan artatutako 0 eta 1. mailako mendekotasuna duten pertsonen ehunekoak

##### Okupazio ehunekoak, zentroka

##### Plaza propioen edo plaza itunduen ehunekoak, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako zentroetan baimendutako plaza kopurua oinarritzat hartuta

	Helburu operatiboak	Adierazlea	Adierazlea	
			2017	2018
2.2	Adineko pertsonentzako egoitzetan eraginkortasuna optimizatzea	Adineko pertsonentzako egoitzetan artatutako 0 eta 1. mailako mendekotasuna duten pertsonen %, artatutako pertsona guztiak oinarritzat hartuta	% 14,61	% 14,51
2.3	Zentroen okupazioa maximizatzea	- Adineko pertsonentzako eguneko zentroen okupazio %	% 94,74	% 93,38
		- Desgaitasuna duten pers. egoitza zentroen okupazio %	% 87,94	% 97,32
		- Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen okupazio %	% 95,30	% 97,01

		- Zentro okupazionalen okupazio %	% 94,49	% 92,99
		- Gizarteratzeko egoitza zentroen okupazio %	% 86,31	% 92,97
		- Adineko pertsonentzako egoitzen okupazio %	% 98,67	% 98,68
		- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzen okupazio %	% 99,76	% 99,77
		- Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzaren okupazio %	% 98,55	% 99,51
		- Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitzen okupazio %	% 99,19	% 100
		- Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitzaren okupazio %	% 98,10	% 96,52
		- Adingabeentzako egoitzen okupazio %	% 95,02	% 111,95
		- Egoera kronifikatua dauden pertsonentzako gizarteratze egoitzen okupazio %	% 100	% 97,87
		- Gizarteratzeko egoitzen okupazio %	% 90,31	% 96,75
		- Emakumeentzako egonaldi ertainetarako egoitza zentroen okupazio %	% 65,00	% 75
2.4	Erantzukizun publiko maila handia mantentzea	Plaza propioen edo itunduen %, adineko pertsonentzako zentroetan baimendutako plaza kopuru osoa oinarritzat hartuta	Egoitzak: % 85,02	% 85,35
			Eguneko zentroak: % 89,17	% 86,64

2.1. adierazleak, «Adineko pertsonentzako egoitza zentroetan eraginkortasuna optimizatzea» izenekoak, adineko pertsonentzako egoitza zentroetan artatutako 0 eta 1. mailako mendekotasuna duten pertsonen % neurtzen du, artatutako pertsona guztiak oinarritzat hartuta. % 15 ingurukoa da ehuneko hori.

2.3. helburu operatiboa, «zentroen okupazioa maximizatzea» izenekoak, aztertuz gero, ikusiko dugu % 96,41 ingurukoa dela batez besteko okupazioa. Aipagarria da babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako zentroen okupazioa (% 111,95), bakarrik dauden atzeritar adingabe kopuru oso handia iritsi baita Gipuzkoara. Horrez gain, aipagarria da indarkeria matxistaren emakume biktimeentzako zentroen okupazio ehunekoak 10 puntu egin duela gora (% 75), gizarteratzeko eguneko zentroetako okupazio ehunekoak 6,6 puntu egin duela gora (% 92,97) eta gizarte bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroetako okupazioak 6,44 puntu egin duela gora (% 96,75).

Azkenik, 2.4. helburu operatiboa, «Erantzukizun publiko maila handia mantentzea» izenekoak, neurtzeko, adierazle hau hautatu dugu: «Plaza propioen edo itunduen %, adineko pertsonentzako zentroetan baimendutako plaza kopuru osoa oinarritzat hartuta». Hori aztertu ondoren, ikusi dugu egoitza zentroetan, plazen ehunekoak gora egin duela % 85,02tik % 85,35era; baina eguneko zentroen kasuan, 2017ko datuekin alderatuta, plaza publikoak % 1,13 areagotu diren arren, aipatutako adierazleak behera egin duela, baimendutako plaza kopuruak askoz ere gehiago egin baitu gora, zehazki % 4,05.

### 3.- Eskaintzaren kalitatea eta hurbiltasuna hobetzea

Gipuzkoako gizarte zerbitzuen 2018-2021 mapa gauzatzean, hainbat adierazle daude zerbitzuaren kalitatearen hobekuntza adierazteko. Bi adierazle orokorrak dira: batez besteko itxarote denbora eta erabiltzailearen jatorrizko eremuan ematea arreta; gainerako adierazleei dagokienez, hauek dira garrantzitsuenak: arreta behar duten adineko pertsonak etxean geratzen laguntzea eta desgaitasuna duten pertsonentzako arreta (bai egoitzetan bai etxebizitzetan) urte osora zabaltzea.

#### Batez besteko itxarote denbora

Batez besteko itxarote zerrendaren adierazlea (3.1.) kalkulatzeko, zentroetan sartu diren pertsonen itxarote denbora erreala hartu da kontuan, muturreko baloreak kontuan hartu gabe (itxarote zerrendan 2 urte baino gehiago daramaten pertsonak). Batez besteko itxarote denborak hauek dira, baliabide bakoitzaren arabera xehatuta:

6. taula.- Zentroetan sartzeko batez besteko itxarote denbora, egunetan.

	Helburu operatiboak	Adierazlea	2017	2018
3.1	Itxarote zerrendan dauden pertsonen batez besteko itxarote denbora murriztea.	Batez besteko egun kopurua (urtean zehar zentroetan sartu diren pertsonena, itxarote zerrendan 2 urte baino gehiago daramaten pertsonak kontuan hartu gabe)		
		- Adineko pertsonentzako egoitzak	201	180
		- Adineko pertsonentzako eguneko zentroak	61	46
		- Desgaitasuna duten pers. egoitzak	370	324
		- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak	256	200
		- Buru osasuneko egoitzak	114	110
		- Buru osasuneko eguneko zentroak	87	51
		- Baliabide guztien batezbestekoa	149	133
		- 3. mailako mendekotasun balioespena duten pertsonak	151	151
		- 2. mailako mendekotasun balioespena duten pertsonak	162	143

2018. urtean zehar, zerbitzu guztietan murriztu dira itxarote denborak; baliabide guztietako batez bestekoa % 11 murriztu da, 149 egunetik 133 egunera.

Itxarote egun kopuruaren murrizketa nabariagoa da eguneko zentroetan: osasun mentalean (% 41), mendekotasunean (% 25) eta desgaitasunean (% 22).

## Jatorrizko eremuetan artatutako pertsonak

Gizarte zerbitzuen kalitatearen berezko elementua da etxetik gertuko arreta ematea. Gainera, 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, zazpigarren artikuluan aitortzen du hurbiltasuna dela Euskadiko Gizarte Zerbitzuak arautu behar dituen printzipioetako bat.

Jatorrizko eremuetan artatutako pertsonen proportzioa % 86 inguruan mantendu da. Aztertutako 14 baliabidetatik 12tan, proportzio horrek gora egin du. 2 baliabidetan bakarrik egin du behera: adineko pertsonentzako egoitza zentroetan eta buruko gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitzetan. Baliabideen araberako sailkapena hurrengo taulan ageri da zehaztuta.

### 7. taula.- Jatorrizko eremuetan artatutako pertsonen ehunekoa

	Helburu operatiboak	Adierazlea	2017	2018
3.2	Jatorrizko lurralde eremuetan artatutako pertsonen proportzioa areagotzea	- Jatorrizko esparruetan artatutako pertsona %	% 86,75	% 86,21
		- Adinekoentzako eguneko zentro %	% 95,75	% 96,70
		- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro %	% 91,59	% 91,61
		- Buruko gaixotasuna duten pertsonen eguneko zentro %	% 93,72	% 93,83
		- Zentro okupazional %	% 75,29	% 75,61
		- Adinekoentzako egoitza %	% 84,14	% 84,30
		- Gizarteratzeko Eguneko Zentroen %	% 87,44	% 86,25
		- Desgaitasuna duten perts. egoitza %	% 82,06	% 82,31
		- Desgaitasuna duten perts. etxebizitza %	% 93,89	% 94,62
		- Buruko gaixotasuna duten perts. egoitza %	% 80,49	% 83,06
		- Buruko gaixotasuna duten perts. etxebizitza %	% 86,41	% 86,68
		- Adingabeentzako egoitza %	% 55,00	% 56,68
		- Egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako gizarteratze egoitza %	% 100	% 100
		- Gizarteratzeko egoitza %	% 82,42	% 83,25
		- Emakumeentzako egonaldi ertaintarako egoitza %	% 100,00	% 100,00

2021. urterako zehaztutako helburuetatik distantzia handienera dauden zerbitzuak hauek dira: buruko gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitzak, % 95eko helburutik 10,31 puntura baitaude; eta adineko pertsonentzako egoitza zentroak, % 89ko helburutik 2,75 puntura baitaude. Gainerako baliabideei dagokienez, aipagarria da % 82ko helburua gainditzen dela buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroen kasuan (% 83,06) eta egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako gizarteratzeko egoitzetan (% 100). Halaber, gainerako baliabideak helburutik oso gertu daude: zentro okupazionalak (% 75,61) eta gizarteratzeko eguneko zentroak (% 84,30). 1,37 eta 2,35 puntu arteko tartean daude

baliabide hauek: buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak (2,17 puntu), desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak (1,87 puntu) eta desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzak (1,38 puntu).

### **Mendekotasuna eta desgaitasuna**

Etxean geratze tasek behera egin dute oro har: adineko pertsonetan % 74,96koa da ehunekoa (2017. urtean baino -% 2,79), eta desgaitasuna duten pertsonen artean % 82,89koa (2017. urtean baino -% 0,49). Horren arrazoi nagusia da 24/2017 Foru Dekretuko 9.2. artikularen aplikazioa, horren ondorioz, mendekotasuneko prestazioetan alta emanda zeuden 587 pertsonari baja eman baitzitzaien, horien prestazioaren zenbatekoa zero baitzen.

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan urtean 365 eguneko arreta ematea % 24,42 areagotu da Atzegik eta Gautenak kudeatutako zentroetan: 2017. urtean % 41,21 zen horrelako zerbitzuen ehunekoa, eta 2018, urtean, berriz, % 65,63koa da ehuneko hori. 2021rako helburua da % 75era iristea.

### **Adingabeak**

Familia harreran dauden 0-7 urte bitarteko adingabeen ehunekoa (3.6. helburua) % 5,23 murriztu da: 2017. urtean % 90,06 zen zifra hori, eta 2018. urtean % 85,35 da.

Familia harrera bidez artatutako adingabeen kopuruak % 27 egin du behera, harreran dauden adingabe kopuru osoa oinarritzat hartuta. Horren arrazoi nagusia da egoitza harrera bidez artatutako adingabeen kopuruak % 33 egin duela gora, arestian aipatu dugun moduan, bakarrik dauden atzerritar adingabe ugari iritsi baitira. Familia harrera modu bereizian aztertzen badugu, % 2 gora egin duela ikusiko dugu: 2017. urtean 349 haur artatu ziren, eta 2018an, berriz, 356.

Azkenik, gizarte eta hezkuntza esparruko arreta zerbitzuetako erabiltzaileen kopuruak (3.7. helburua) % 21 egin du behera: 2017. urtean 1.196 pertsona artatu ziren, eta 2018. urtean, berriz, 943.

## 4.- Ondorioak

Aurreko ataletan aipatutako informazioa oinarritzat hartuta, ondorio hauek dira aipagarriak:

### Alderdi positiboak

- Arreta estaldura osoa mantendu da (1.1. helburua)
- 2018-2021 mapan aurreikusitako plazen kopuru handi bat ireki da (1.4. helburua)
- Adineko pertsonentzako baliabideen eskaintzan lurralde desorekak murriztu dira (2.1. helburua)
- Zentroen okupazioa maximizatu da (2.3. helburua)
- Itxarote zerrendan dauden pertsonen batez besteko itxarote denbora murriztu da (3.1. helburua)
- Jatorrizko lurralde eremuetan artatutako pertsonen proportzioa areagotu egin da (3.2. helburua)
- Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetan eta etxebizitzetan urtean 365 egunera zabaldu da arreta (3.4. helburua)

### Alderdi negatiboak

- Itxarote zerrenda luzeak, bereziki adineko pertsonetan (1.5. helburua)
- Eraginkortasunaren optimizazio gabezia dago adineko pertsonentzako egoitzetan (2.2. helburua)
- 2017ko datuekin alderatuta, etxean geratzeko tasek behera egin dute (3.3 eta 3.5. helburuak)

Azkenik, adierazle batzuen betetze maila kontuan hartuta, bidezkoa da 2.2 eta 2.3 helburu operatiboei lotutako adierazleen helburuak aldatzea: 2.2 helburuan, % 5etik % 10era pasako da helburua; eta 2.3 helburuan, berriz, % 90etik % 85era.

## 5.- Gomendioak 2019-2021 hirurtekorako

- 1.- Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako egoitza zentroetan aurreikusitako plazak irekitzea, arreta berezia jarriz Buruntzaldeko, Deba Kostako eta Oarsoaldeko plazetan.
- 2.- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa sustatzea, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonak egoitza zentroetara sartzeko itxarote zerrenda murrizteko neurri gisa.
- 3.- Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako eguneko zentroetan falta diren plazak irekitzea Debagoienan, eskualde hori baita defizita duen bakarra.
- 4.- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan arreta urtean 365 egunetan emateko helbururantz aurrera egitea.
- 5.- Aldi berean, itxarote zerrendetako batez besteko itxarote denbora murrizten jarraitzea, bereziki desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetan sartzeko.
- 7.- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan falta diren plazak irekitzea mendebaldeko sektorean, era horretan lurralde mailan dagoen desoreka zuzentzeko.
- 8.- Debagoienan eta Goierrin buruko gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitza plazak sortzeko ahalegina egitea, baliabide horri dagokienez, eskualde horietan baitago premia gehien.
- 9.- Gizarte bazterketa egoera larrian dauden eta desgaitasun, buruko gaixotasun eta/edo kontsumo arazoak dituzten pertsonentzako plazak sortzea.
- 10.- Babesgabetasun egoeran dauden adingabeen kasuan, bakarrik dauden atzerritar adingabe ugari iritsi direnez, laurtekorako aurreikusitako plaza kopuruaren bikoitza ireki behar izan da 2018. urtean. Beraz, 2019-2021 hirurtekoan sortuko dituen plazen aurreikuspena doitu beharko du Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak.

### I. ERANSKINA: MAPAREN BETETZE MAILAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Maparen helburu orokorrak	Helburu operatiboak	Adierazlea	Egoera 2017/12/31n	GAUZATZEAREN URTEKO JARRAIPENA				XEDEA	MUGARRIA	
				2018	2019	2020	2021			
<b>1. Arreta estalduraren unibertsalizazioan aurrera egitea 2021. urterako</b>	1.1	Populazioaren arretaren egungo estaldura mantentzea 2021. urtean	Arretaren estaldura osoaren %	G: % 3,15 E: % 4,93 L: % 4,06	G: % 3,15 E: % 4,93 L: % 4,06				<b>% 4,50</b>	
	1.2	Mendekotasun egoeran dagoen populazioaren egungo estaldura % mantentzea 2021. urtean	- 1. mailako mendekotasuna duten pertsona artatuen % / balioetsitako 1. mailako pertsonak guztira - 2. mailako mendekotasuna duten pertsona artatuen% / balioetsitako 2. mailako pertsonak guztira - 3. mailako mendekotasuna duten pertsona artatuen % / balioetsitako 3. mailako pertsonak guztira	% 75,02	% 70,85				<b>% 75</b>	
				% 90,72	% 87,35				<b>% 90</b>	
				% 93,66	% 92,73				<b>% 95</b>	
	1.3	Mendekotasun handiena duen populazioaren arretaren egungo estaldura % mantentzea 2021. urtean	3. mailako mendekotasuna duten adineko pertsona artatuen % /3. mailako mendekotasuna duten adineko pertsonak guztira	% 92,29	% 92,73					
	1.4	Baliabideen eskaintza areagotzea, zehaztutako estaldura helburuen arabera	Mapan 2021. urterako zehaztutako plaza berrien kopurua		289				<b>869</b>	
1.5	Itxarote zerrendak murriztu eta itxarote zerrenda teknikoaren maila mantentzea	Zerbitzuetako benetako itxarote zerrenden eta itxarote zerrenda teknikoaren arteko aldea - Adineko pertsonen egoitzak - Adineko pertsonentzako E.Z - Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak - Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitzak - Gizarteratzeko eguneko zentroak	387 -29 28 33 1	300 20 14 51 11				200 0 10 15 0		
1.6	Ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoaren bidez laguntza pertsonala areagotzea	- Ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoaren onuradunen, Familia ingurunean zaintzeagatiko diru laguntza eta ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsona kopuru osoa kontuan hartuta	G: % 25,50 E: % 37,88 L: % 33,26	G: % 27,28 E: % 40,79 L: % 35,89				<b>% 40</b>		



Maparen helburu orokorrak	Helburu operatiboak	Adierazlea	Egoera 2017/12/31n	GAUZATZEAREN URTEKO JARRAIPENA				XEDEA	MUGARRIA
				2018	2019	2020	2021		
2. Gipuzkoako gizarte baliabideen sare publikoko eskaintza egokitzea gizarte premien bilakaerara, eta horien lurralde oreka lortzea	2.1	Adineko pertsonentzako baliabide eskaintzan lurralde desorekak murriztea, eremu bakoitzean Gipuzkoako batez besteko estaldura lortuz adineko pertsonentzako egoitza zentroetako zein eguneko zentroetako plazetan.	Bergaraldea 3,77 Bidasoaldea 3,33 Buruntzaldea 3,00 Deba Erdia 4,31 Deba Kosta 2,99 Donostia 4,47 Iraurgi 4,73 Leintz Ibarra 4,42 Oarsoaldea 3,46 Oria Garaia 4,23 Tolosaldea 4,74 Urola Garaia 4,29 Urola Kostal. 3,94	3,77				4,01	
				3,35				4,01	
				3,00				4,01	
				4,37				4,01	
				3,19				4,01	
				4,48				4,01	
				4,73				4,01	
				4,56				4,01	
				3,57				4,01	
				4,46				4,01	
			4,74				4,01		
			4,29				4,01		
			3,94				4,01		
	2.2	Adineko pertsonentzako egoitzetan eraginkortasuna optimizatzea	Adineko pertsonentzako egoitzetan artatutako 0 eta 1. mailako mendekotasuna duten pertsonen %, artatutako pertsona guztiak oinarritzat hartuta	% 14,61	% 14,51			% 10	
	2.3	Zentroen okupazioa maximizatzea	- Adineko pertsonentzako eguneko zentroen okupazio %	% 94,74	% 93,38			% 99	
			- Desgaitasuna duten pertsonen eguneko zentroen okupazio %	% 97,74	% 93,38			% 99	
			- Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen okupazio %	% 95,30	% 97,01			% 99	
			- Zentro okupazionalen okupazio %	% 94,49	% 92,99			% 100	
			- Gizarteratzeko eguneko zentroen okupazio %	% 86,31	% 92,97			% 90	
			- Adineko perts. egoitzen okupazio %	% 98,67	% 98,68			% 99	
			- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzen okupazio %	% 99,76	% 99,77			% 99	
			- Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzien okupazio %	% 98,55	% 99,51			% 99	
			- Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitzen okupazio %	% 99,19	% 100			% 99	
			- Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitzien okupazio %	% 98,10	% 96,52			% 99	



			- Adingabeentzako egoitzen okupazio %	% 95,02	% 111,95				% 99	
			- Egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako gizarteratze egoitzen okupazio %	% 100	% 97,87				% 99	
			- Gizarteratzeko egoitzen okupazio %	% 90,31	% 96,75				% 99	
			- Emakumeentzako egonaldi ertainetarako egoitza zentroyen okupazio %	% 65,00	% 75				% 90	
	2.4	Erantzukizun publiko maila handia mantentzea	Plaza propioen edo itunduen %, adineko pertsonentzako zentroyetan baimendutako plaza kopuru osoa oinarritzat hartuta	Egoitzak: % 85,02 Eguneko zentroyak: % 89,17	Egoitzak: % 85,35 Egun. Zentr: % 86,64				% 85 % 85	

Maparen helburu orokorrak	Helburu operatiboak	Adierazlea	Egoera 2017/12/31n	GAUZATZEAREN URTEKO JARRAIPENA				XEDEA	MUGARRIA
				2018	2019	2020	2021		
3. Zerbitzuen eta prestazioen eskaintzaren kalitatea hobetzea, pertsonen premien araberako arreta egokia, ahalik eta hurbilekoena bermatzeko	3.1	Itxarote zerrendan dauden pertsonen batez besteko itxarote denbora murriztea.	Batez besteko egun kopurua (urtean zehar zentroetan sartu diren pertsonena, itxarote zerrendan 2 urte baino gehiago daramaten pertsonak kontuan hartu gabe)						
			Adineko pertsonentzako egoitzak	201	180			183	
			- Adineko pertsonentzako eguneko zentroak	61	46			55	
			- Desgaitasuna duten perts. egoitzak	370	324			333	
			- Desgaitasuna duten perts.E.Z.	256	200			230	
			- Buru osasuneko egoitzak	114	110			103	
			- Buru osasuneko eguneko zentroak	87	51			78	
			- Baliabide guztien batezbestekoa	149	133			135	
			3. mailako mendekotasun balioespena duten pertsonak	151	151			138	
			2. mailako mendekotasun balioespena duten pertsonak	162	143			147	
	3.2	Jatorrizko lurralde eremuetan artatutako pertsonen proportzioa areagotzea	- Jatorrizko esparruetan artatutako pertsona %	% 86,75	% 86,21			% 90	
			- Adinekoentzako eguneko zentro %	% 95,75	% 96,70			% 97	
			- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro %	% 91,59	% 91,61			% 94	
			- Buruko gaixotasuna duten pertsonen eguneko zentro %	% 93,72	% 93,83			% 96	
			- Zentro okupazional %	% 75,29	% 75,61			% 77	
			- Gizarteratzeko eguneko zentroen %	% 84,14	% 84,30			% 86	
			- Adinekoentzako egoitza %	% 87,44	% 86,25			% 89	
			- Desgaitasuna duten pertsonen egoitza %	% 82,06	% 82,13			% 84	
			- Desgaitasuna duten perts. etxebizitza %	% 93,89	% 94,62			% 96	
			- Buruko gaixotasuna duten perts. egoitza %	% 80,49	% 83,06			% 82	
- Buruko gaixotasuna duten perts. etxebizitza %	% 86,41	% 84,68			% 95				
- Adingabekoentzako egoitza %	% 55	% 56,68			% 31				
- Egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako gizarteratze egoitza %	% 100	% 100			% 100				
- Gizarteratzeko egoitza %	% 82,42	% 83,25			% 84				

			- Emakumeentzako egonaldi ertainetarako egoitza %	% 100	% 100				<b>% 90</b>	
	<b>3.3</b>	Arreta premiak dituzten adineko pertsonen etxean geratzen laguntzea	Beren etxean bizi diren > 65 urteko artatutako pertsona %, zerbitzu guztietan artatutako adineko pertsona guztiak oinarritzat hartuta	% 77,75	% 74,96				<b>% 77</b>	
	<b>3.4</b>	Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta (egoitzetan eta etxebizitzetan) urte osora zabaltzea	Urteko 365 eguneko arreta eskaintzen duten zentro kopurua	% 41,21	% 65,63				<b>% 75</b>	
	<b>3.5</b>	Arreta premiak dituzten pertsona desgaituei etxean geratzen laguntzea	Beren etxean bizi diren eta desgaitasuna duten artatutako pertsona %, zerbitzu guztietan artatutako pertsona desgaitu guztiak oinarritzat hartuta	% 83,21	% 82,89				<b>% 80</b>	
	<b>3.6</b>	Irizpide orokor gisa ezartzea bertako adingabekoen harrera familia bidez egitea	- Familia harreraren dauden 0-7 urte bitarteko adingabekoen %  Familia harreraren dauden adingabekoen % /Harreraren dauden adingabekoak guztira	% 90,06  % 61,83	% 85,35  % 45,06				<b>% 100</b>  <b>% 60</b>	
	<b>3.7</b>	Gizarte eta hezkuntza esparruko esku hartze zein esku hartze psikosozialeko zerbitzuak sustatzea	Programetako erabiltzaileen kopurua	1.196	943				<b>1.700</b>	

Maparen helburu orokorrak		Helburu operatiboak	Adierazlea	Egungo egoera	XEDEA	MUGARRIA
<b>4. Proposatutako helburuen eta neurrien jarraipen, ebaluazio eta kontrol publikoa ahalbideztea.</b>	4.1	Urteko ebaluazio txostena egitea	-	-	-	Urteko txostena idaztea
	4.2	Urteko ebaluazio txostena hedatzea	-	-	-	Urteko txostena aurkeztea
	4.3	Azken ebaluazio txostena egitea	-	-	-	Azken txostena idaztea
	4.4	Azken ebaluazio txostena hedatzea	-	-	-	Azken txostena aurkeztea
	4.5	Maparen helburuak jarraipen eta ebaluaziorako planetik ateratako ondorioetara egokitzea	-	-	-	Helburuak egokitzea